

TUTERAKO AGERIKO BILKURA

Tutera, 2002-X-18

2002.eko urriaren 18an, Tuterako Dekano jauregian, Nafarroa Oinez 2002 dela eta, Ageriko Bilkura egin da Santa Ana aretoan.

Bildu dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; H. Knörr, buruordea; X. Kintana, idazkaria; P. Oihartzabal, *Iker* sailburua; A. Urrutia, *Jagon* sailburua; P. Altuna, J.L. Davant, A. Eguzkitza, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J.M. Satrustegi eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J.L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzaile; J.J. Zearreta, ekonomia eragile eta R. Badiola, argitalpen eragile eta euskaltzain urgazleak. Mahai-puruan, baita ere, Kontxi Blanco, Tuterako *Argia* ikastolaren lehendakaria; Txema Azkona, *Argia* ikastolaren zuzendaria. Aretoan bilduta zeuden beste 40 bat lagun, ikastolako guraso, irakasle eta euskaltzale, beraien artean, gero aipatuko diren txostengile biak.

Kontxi Blanco, ikastolako lehendakariak ongi etorria ematen dio Euskaltzaindaria eta;

Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburuak agurtzen ditu, Blanco andrea eta baita ere, *Argia* ikastolako irakasle, guraso, ikasle eta beste.

Ondoren, X. Kintana euskaltzainak Yēhudah ha-Levi, XII. mendeko idazle tuterarren *Haizearen hegaletan* poesia liburuaren aurkezpena egiten du. Liburu hau hiru hizkuntza hauetan argitaratu da: hebreeraz, euskaraz eta gaztelaniaz.

Jose Migel Bidador, euskal filologiako lizentziaduna eta idazleak: «Los académicos de la Ribera» izeneko txosten interesgarria irakurtzen du, jarraian.

Pello Monteano, soziologian lizentziadunak eta historian doktore den jaunak bere txostena irakurtzen du: «Bajonavarros en la Tudela del siglo XVI» deritzana. Oso onuragarria, jakiteko, bereziki, bai Nafarroa Behereko eta bai Zuberoako merindadeko hiriburu hauetara garai hartan etorritako euskaldunak.

Azkenik, Txema Azkona, ikastolaren zuzendariak, ageriko bilkura amaitutzat ematen du, Euskaltzaindiaren lekukotasuna, beraientzat, ez bakarrik, onuragarria, baita ere ohorea dela aipimarratuz.